




Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS ON
EGINEZ BIZI
IZAN ZEN**

3. GAIA
GURASOAK PARROKIAN

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**"Behartsuak
ebanjelizatzerak
bidali naute"**
LuKas 4, 18

1. Helburua

- Jesus askotariko giza egoeretara hurbiltzen eta horiekin konprometitzen dela ikusi.

2. Helburu bereziak

- Jesusek banan-banan begiratzeko diola pertsona bakoitzari eta, edozein egoeratan egonik ere, beti lehenetsi egiten duela ikusi.
- Bakarka nahiz familian besteengana nola hurbiltzen garen eta besteak nola hartzen ditugun aztertu Ebanjeliotik.



Idea nagusiak

- Jesusek bere bizimoduarekin erakusten digu besteen alde eginahalak eginez eta lagun hurkoa maitatuz bizi behar dugula geuk ere.
- Jesusen bizimoduak eredu izan behar du gure bizitzan.
- Jesus gertukoa izan zen guztiarekin eta geuk ere denekin gertuko izan behar dugula diosku.



Ezinbesteko lagungarriak

- Murala: paper zuria, kartulinak...
- Errotuladoreak, boligrafoak, guraizeak, aldizkariak

Hartu astia saioaren jardunbidea ulertzeko eta, aldezturik, behar izango dugun guztia prestatzeko.



Saiorako gida

Laguntzailearentzat...

Saioa, bost unetan banatuko dugu:

- 1. unea: Agurra eta aurkezpena (15 minutu). 1-2 urratsak.
- 2. unea: Edukiaren garapena (15 minutu). 3-4 urratsak.
- 3. unea: Bilketa eta laburpena (20 minutu). 5. urratsa.
- 4. unea: Otoitza eta barneratzea (10 minutu). 6. urratsa.
- 5. unea: Familian bizitzeko. 7. urratsa.



1. unea: Agurra eta aurkezpena

Laguntzaileak bildutakoak agurtu eta aurreko saioan landutakoak gogoratuko dizkie. Lehen saioan, Jesus ezagutu nahi genuen galdera egin genion geure buruari eta orain bere jokaeran eta pertsonekin zuen hartu-emanen sakonduko dugu.

Ebanjelioez baliatuz, Jesusengana hurbil gaitezke eta bere mezua, izateko era, bizimodua hobeto ezagutuko dugu. Ahulezian zeuden pertsonengandik gertu zegoen eta horiez ziren bere kutunak.



1. urratsa. **Murala egin...**

Bost minutu emango dizkiegu, lagun bakoitzak idatziz, marraztuz,... Jesusek besteen alde egin zuen zerbait, nori laguntzen zion, nola laguntzen zuen,... irudika dezan.

Amaitu ondoren, muraletik aldendu eta, isilik, bi minutuz begiratuko diogu...



2. urratsa. **Pentsatu ...**

- ¿Zer gertatu zaigu deigarri?
- ¿Zerbaitek harritu ote gaitu??



2. unea. Edukiaren garapena



3. urratsa. Saioa sustatzen ari denak azalduko die ebanjelioko hainbat txataletan islatzen dela Jesusen izaera eta jokaera eta gaur Jesusek eta Zakeo zerga-biltzaileak bat egin zutenekoa aztertuko dutela.

Jesusen garaian, zerba-biltzaileak gaizki ikusita zeuden, neurrigabekeriak egiten zituztelako beren karguaz baliatuz eta erromatar agintariekin bat eginda zeudelako. Zakeok badaki bekatari dena eta denek gaitzesten dutena. Ebanjelioko pasartean kontaktzen denez, badirudi zerbait bazekiela Jesusez eta, ondorioz, jakin-mina piztu zitzaiola eta Hari buruz ziotena egiaztatu nahi izan zuela.



Laguntzaileak, eragile, katekista eta gurasoentzako eranskinaz –“Bibliako kontaketa”- baliatuz, gertaera azalduko du labur-labur.



4. urratsa. **Lukas 19, 1-10** txatala irakurriko dugu

Ebanjelariak darabiltzaten hitzak ez dira ustekabeak. Ohar zaitzete, batez ere, azpimarratuta eta gorritz agertzen direnez. (I. eranskina).

Jesus Jerikon sartu eta herrian barrena zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-burua, oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen, baina ezin zuen jendearengatik, txikia baitzen. Lasterka aurrerago joan eta pikondo batera igo zen, Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen. Jesusek, hara iristean, gora begiratu eta esan zion: “Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta”. Jaitsi zen, bada, berehala eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: “Bekatari baten etxera joan duk ostatur”. Zakeok, berriz, zutiturik, Jaunari esan zion: “Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei ematen dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot”. Jesusek esan zion: “Gaur iritxi da salbamena etxe honetara, gizon hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da”.



3. unea. **Bilketa eta laburpena**



5. urratsa. Jardunbidea. **“Nire jarrera”** (talde osoak parte hartuko du)

- Aurretik, biltzen garen geletako horma batean 1 zenbakia duen A3 kartela itsatsiko dugu eta beste batean, 10 zenbakia duena.
- Laguntzaileak koadroko galderetako bat egin dezanean, taldekide bakoitza, bere adostasun edo desadostasun mailaren arabera, zenbaki batetik ala bestetik hurbil kokatuko da, 1 “batere ados” eta 10 “erabat ados” dela kontuan hartuta.
- Taldekideak koka daitezenean, azal dezatela banan-banan (denek parte hartzea komeni da) zergatik aukeratu duten jarrera hori.
- Beren arrazoiak azaldu ondoren, taldekideak entzutean, lekuz aldatuko lirakeen ala ez galdetuko die laguntzaileak. Norbait aldatzen bada, zergatik galdetuko diogu.
- Galdera guztiekin berdin jokatu (kontuan hartu zenbat denbora dagoen ariketa egiteko).

- Benetan, ezagutzen dugu Jesusen bizimodua?
- Jesusen bizimoduak, besteekin zuen jokaerak, ba ote du eraginik gure bizitzan?
- Gure seme eta alaben heziketan, ahalegintzen gara besteenganako errespetuan, besteen aldeko elkartasun eta konpromisoan haz daitezten?
- Gure artean, familia bezala, elkar onartzen dugu aniztasunean, elkarren jokaerak errespetatzen ditugu, elkarri laguntzen diogu?

Amaitzeko, laguntzaileak ideia nagusiak jasoko ditu..

4. unea. Otoitza eta barneratzea


 6. urratsa. Denok batera otoitzegiteko...



Norbait oinazetan ikus dezadanean,
Jesus, irakats iezadazu maitatzen.
Jesus, daukadana banatzeko aukera izan dezadanean,
Jesus, irakats iezadazu maitatzen.
Norbait adorerik gabe edo triste aurki dezadanean,
Jesus, irakats iezadazu maitatzen.
Familian nire beharra izan dezatenean,
Jesus, irakats iezadazu maitatzen.
Nire denbora adiskideei eskain diezaiedanean,
Jesus, irakats iezadazu maitatzen.
Zuzenak ez diren egoerak ikus ditzadanean,
Jesus, irakats iezadazu maitatzen.

Teresa de Calcuta

5. unea: Familian bizitzeko

 7. urratsa. Hona hemen hainbat proposamen familian egiteko.

- Hurrek badakite maite dituztenei, beraientzat konfiantzazkoak eta onak direnei laguntza eskatzen. Ikus dezatela beraiek ere hainbat gauza egin dezaketela etxean besteen alde.
- Irakurri seme edo alabarekin ebanjelioko pasarteren bat eta solasean jardun berarekin Jesusen jokaeraren inguruan. Hona hemen irakur daitezkeen txatalak: Lk 18, 15-17; Mk 10, 46-52; Mk 6, 30-44.
- Parrokian, Elizbarrutiko Misioen, Domunden, Caritasen,... alde diru-bilketa egin daitenean, banatzea eta laguntzea ezinbesteko dugula azaldu.
- Egunen batean, familia bazkariren batean, denon artean zerbait banatu. Banatzen denean, denentzat izaten dela eta soberan ere geratzen dela ikusarazi seme-alabari.

I. Eranskina

Lukasen Ebanjeliotik 19, 1-10

Jesus Jerikon sartu eta herrian barrena zihoan. Bazen han Zakeo izeneko gizon bat, zergalari-burua , oso aberatsa. Jesus zein zen ikusi nahirik zebilen, baina ezin zuen jendearengatik, txikia baitzen. Lasterka aurrerago joan eta pikondo batera igo zen, Jesus ikusteko, handik igaro behar baitzuen. Jesusek, hara iristean, gora begiratu eta esan zion: “Zakeo, jaitsi berehala, gaur zure etxean gelditu behar dut eta”. Jaitsi zen, bada, berehala eta pozik hartu zuen etxean. Hori ikusirik, denak marmarka hasi ziren: “Bekatari baten etxera joan duk ostatzuz”. Zakeok, berriz, zutiturik, Jaunari esan zion: “Jauna, neure ondasunen erdiak behartsuei ematen dizkiet eta, inori ezer ostu badiot, lau halako bihurtuko diot”. Jesusek esan zion: “Gaur iritxi da salbamena etxe honetara, gizon hau ere Abrahamen ondorengoa baita. Izan ere, Gizonaren Semea galdua zegoena bilatzera eta salbatzera etorri da”.